



Global express


GAURKOTASUNA IKASGELAN

16

► Dosierra | Gida didaktikoa | Jarduerak

Kopenhage: azken deialdia


- AURKIBIDEA**
- 2 orr.** Riotik Kopenhagera, Kioton barrena
 - 3 orr.** Albiste onak
 - 4 orr.** Ondorioak denok pairatzen ditugu... baina ez hein berean
 - 5 orr.** Kopenhagerako bidean
 - 5 orr.** Arazoaren gakoak
 - 6 orr.** Erraldoi ala zoriontsu? Aurrerakuntzaren ideia aldatzea
 - 6 orr.** Herrialdeen erantzukizunak...
 - 7 orr.** eta pertsonen ardurak
 - 7 orr.** Gobernu espainiarrarentzako proposamenak



Kiotoko Protokoloa bukatzeaz, Kopenhageko Goi Bilerak abenduan erabakiko du zer gertatu behar den. Baliteke oraingo hau klima-aldaketa geldiarazteko azken aukeretako bat izatea.

Global express honetan, planetaren berotzeari aurre egiteko xede duen Goi Bileraren garrantziaz gogoeta egin dezagun elementuak ez ezik, Kopenhagen gure ordezkari politikoek arduraz jardun dezaten ezinbestekoa den herritarren jarduerarako iradokizunak ere aurkezten dizkigu.

Riotik Kopenhagera, Kioton barrena



Klima-Aldaketaren gaineko Nazio Batuen Esparru-Hitzarmena (UNFCCC) sinatu duten 170 estatuen ordezkariak Kopenhagen bilduko dira urte bukaeran, planetaren bero-

tzeari eta klima-aldaketari eman beharreko erantzun berria adosteko xedez. Arrakasta izatekotan, bertan jasoko den emaitza nagusia negutegi efektuko gas kaltegarriak murrizteko moduz osoko ituna izango da, hau da, zein neurritan eta zein epetan urrituko diren emisioak. Neurri horiek 2012 urtean sartuko lirake indarrean, orduan amaituko baita Kiotoko Protokoloaren indarraldia¹.

Lurraren Goi Bileran (Rio de Janeiro, 1992) Klima-Aldaketaren gaineko Nazio Batuen Erakundearen Esparru-Hitzarmena adostu zen. Horren helburu behinena, jakina denez, "atmosfera dautzan negutegi-efektuko gasen kontzentrazioa, sistema klimatikoarekiko interferentzia antropogeniko arriskutsuak prebenitzeko moduko mailaraino" egonkor iraunaraztea zen.

1997 urtean, Protokoloari izena eman zion Kioto hirian, 34 estatu industrializatuk sinatu zuten handik 90 egunera indarrean sartu beharko zuen Hitzarmenaren instrumentu bat... guztirako emisioen %55 gutxienez sortzen zituzten 55 herrialdek, gutxienez, izenpetu balute. Ez zen horrelakorik gertatu 2004ko urrira arte, Errusiak sinatu arte, alegia. Eta hitzarmen hura izenpetu zuten 34 estatuetatik bakarra da berretsi egin ez duena: Estatu Batuak, nahiz eta 2004an horrelako gasen emisioak planetako guztiaren %22,2 herrialde horrek eraginikoak ziren.

Planetaren berotze prozesuari buelta emateko edo, gutxienez, geldiarazteko xedez, Hitzarmenak konpromiso orokorrak baina norberari berariazko erantzukizunak agindu zizkion. Herrialde industrializatuak I. Eranskinean agertzen dira: Europar Batasuna, Estatu Batuak, Japonia, Suedia, Norvegia, Kanada, Zeelanda Berria, Australia eta Errusia. SESB ohia osatzen zuten bederatzi estatuak II. Eranskinean dautza, "Trantsizioko ekonomiak" bataiatuak. Batzuei eta besteei dagozkien eginbeharrak izari


desberdinekoak dira. "Garapenean dauden" herrialdeak (hau da, estatu txiroetatik hasita, Qatar, Hego Korea edota Saudi Arabia barne), beste atal batean daude, Protokoloak badira ere, emisioak murrizteko neurririk hartzeko obligaziorik ez dutelako.

Estatu sinatzaileek, haietako bakoitzak 1990 urtean eragiten zituen negutegi efektuko gasen emisioen %5 2012 urtera arte murrizteko konpromisoa hartu zuten. Halaz ere, 2008ko maiatzean datu kezagarria egiaztatu zuten Hawaiiiko Mauna Loa Behategiaren neurketek: atmosferako karbono-dioxidoaren kontzentrazioak marka guztiak hautsiak zituen, 387 zati milioiko (zm) izatera iritsi zen gas horren presentzia. Hori, mende batean, %30eko areagotzearen pareko zen, negutegi efektuaren areagotzeaz 1895ean idatziriko estreinako artikuluko zientifikoetan Svante Arrhenius-ek plazaratu zituen datuak (300 zm) aintzat hartuta. Geroago, 1970etik 2000ra arte, kontzentrazioa 1,5 zm gehitu zen urteko baina, 2000tik 2007 urtera arte batez besteko hazkuntza 2,1 zm izan zen. Eta 2008 urtearen hasieratik 450 zm-ko kontzentrazioarako bidean goaz, zitzu bizian joan ere, 30 urteko epeari begira.

Emisioen geldiarazte latza ekarri du krisialdi ekonomikoak. Hori joeraren aldaketa bihurtzea guk eremu pribatu eta publiko guztietan hartuko ditugun erabakiek –indibidual, kolektibo, ekonomiko, politiko... guztiek– baldintzatuko dute. Eta erabaki horietako bat, Kopenhagen hartuko den konpromisoa izango da.

Nondik ote dator CO₂ hori guztia?

Iturria: World Watch, 28 zk.



¹ ik. Global express 10 zk.: "Salbatuko de gaitu Kyotok?"

Ba al zenekien?

- ▶ Historikoki igorritako negutegi efektuko gas (NEG) emisio guztien %76 herrialde industrializatuak egin dituztela?
- ▶ Txina eta Indiako emisioak azkar hazten ari diren arren,

horien erantzukizun historikoa hutsaren hurrena dela, bertako biztanleria zinez eskerga izateaz gainera, garapenean ibilbide labur-laburra egin dutelako oraindik?


- ▶ 1959 eta 2000 urteen artean Estatu Batuek (bertako biztanleria munduko guztiaren %4,6 baizik ez

delarik) igorri zutela NEGen %27, Kanadak %2, Mendebaldeko Europak %24, Sobiet Batasun ohia %15, Japoniak %5 eta Australia eta Zeelanda Berriak %1?

- ▶ Munduko gainerako herrialdeek, Txina eta India barne, gas horien %20 baino gutxiago igorri zutela?

Kiotoko 36 herrialdeak: agindutakoa eta betetakoa

Iturria: http://en.wikipedia.org/wiki/List_of_Kyoto_Protocol_signatories



1990eko urteko emisio zehatzen mailekiko aldaketa-portzentajea, herrialdeka

Albisteonak

Kiotoko Protokoloa sinatu zenetik munduan gauza asko gertatu dira eta, egiari zor, horietako batzuk itxaropena berpiztu arazten digute. Horietan lehen eta behinena, seguruenik, hau da: gizadi osoaren baitan berebiziko eragina duen arazo hau dagoeneko ez da zientifikoen edo gizaki biziki kontzientziatuen kontua bakarrik; alderantziz, geroz eta tarte zabalagoa ireki du herritarrek nozitzen dituzten kezken pertzepzioen artean eta hedabideetan, eta hauek geroz eta maizago erakusten dizkigute arazoaren gaineko datuak, azterketak eta testigantzak.

Duela bost urte, klima-aldaketarik bai ala ez eta, izatekotan, gizakiak eraginikoa izan zitekeen ala ez, eztabaida sutsuan ari zen mundua. Egun, ordea, ezbaia iraganeko kontua da eta jarrera eszeptikoa dutenak geroz eta bakanagoak dira; areago, *Worldwatch Institute*-k plazaratutako “El mundo ante el calentamiento global” izeneko azken txostenaren arabera, horiek “... hartu beharko diren neurrien ondorioz kalteturik gertatuko diren enpresen soldatapekoak dira beti”. Bide horretan bi zedarr nagusi izan dira.

2006ko urrian, Britainia Handiko Gobernuaren aginduz idatzi eta plazaratu zen Stern, “La economía del cambio climático” txostenak argi eta garbi utzi zuen klima-aldaketari konponbidea ematea posible dela, ezer

ez egitea baino posibleago. 2007 urtean, Klima-Aldaketaren gaineko Adituen Gobernu arteko Taldearen (*Intergovernmental Panel of Climate Change*, IPCC) laugarren ebaluazioak sekulako adostasun zientifikoa ezarri zuen planetaren berotzearen eta horretan giza jarduerak izaniko eraginaren inguruan.

Geroztik, gobernu guztiak, paperaren gainean behintzat, adostasun horrekin bat datoz eta neurriak hartzen eta aplikatzen dituzte. Neurriok, ordea, maiz ez dira aski eta, gainera, gobernu horiek berek xedaturiko bestelako politikek deuseztatu egiten dituzte aipaturiko neurriak. Klima-aldaketa eta negutegi efektuko gasen emisioen murrizketa G8ren (gehien industrializaturik dauden zortzi herrialdeek osaturiko taldea), G20ren eta antolatzen den goi mailako bilera guzti-guztietako gai finkoak izan ohi dira.

Halaz ere, oraino egiteke dagoena asko-asko da eta, gainera, hobe egin daiteke. Gai horri dagokiola, 2007-2008ko Giza Garapenari buruzko Txostenak salatu zenez, “...governuek planeta berotzearen errealitatea aintzat hartzen duten bitartean, arazoa konpontzeko beharrezkoa den mailatik behera segituko dute oraino neurri politikoek. Adiera horretan, sekulako aldea dago ebidentzia zientifikoaren eta erantzun politikoaren artean.”

“2007ko otsailaren 12a egun historikotzat joko da, orduan zalantzak desagertu eta behin betikoz egiaztatu zelako klima-aldaketa giza jarduerak eragindakoa dela”

Achin Steiner, Ingurugiro Aferetarako Nazio Batuen Programa Buruaren hitzak, IPCCren Laugarren Ebaluazio Txostenean agertu zen Fisika Zientziaren Funtsen gaineko txostenaren aurkezpenean.

Ondorioak denok pairatzen ditugu... baina ez hein berean

Behartsuek, bizi diren bitartean, Lurrean uzten duten aztarna ia ezin hautemaneko delarik, gure interdependentzia ekologikoaren gestio ez iraunkorraren ondorio gehienak beraiek nozitzen dituzte. *Oxfam Internacional*-ek plazaratutako "Evidencia que duele" txostenean adierazten denez, klima-aldaketarekin zuzenean loturiko ondorioengatik egun 26 milioi gizaki herritik kanporaturik bizi dira eta, mende honen erdialdean, kopuru hori 200 milioiraino irits daiteke. Hori baino askoz ere lehenago, 2015 urterako, oso litekeena da 375 milioi pertsona kausa horrek eraginiko hondamendien biktima izatea.

2008 urtean Indiako Bihar estatuko 3,8 milioi gizakik lur haietan ehun mila hektarea estali zituzten uholdeen ondorioak pairatu zituzten. Katiya herri txikiko Tarzumul Haq nekazariak, familia osoa hartu eta Nepalekiko mugaraino errefuxiatu-eremu batera joan behar izanik, urakazienda eta laboreak eraman zituela ikusi zuen. "Dirurik ez daukat. Bildua nuen ale guztia urak eraman dit. Lurjabea bera ere uztairik eta ondarerik gabe geratu da eta, horrenbestez ezin gaitzake lagundu. Urak hor bertan luze iraungo du eta, gutxienez bi uzta galduko ditugu. Zer emango diot ene familiari jateko?"

Katrina urakanak ederki gogorarazi zigun klima-aldaketaren aurrean gizakia arunt ahula dela, are herrialde garatu batean ere, inpaktuek gehiegikeria instituzionalduekin interaktuatzan dutenean, bereziki. Baina krisia-



ren aurreko hauskortasun edo ahulezia guztiak ere ez dira tamaina berekoak. Itsas mailak gora egin ahala, Londres, Los Angeles eta beste hiri batzuk uholdeak nozitzeko arriskutik gertuago badaude ere, bertako biztanleek defentsa-sistema modernoek babes bermatua dute. Planetaren berotzeak **Afrikako Adarreko** klimapatrioiak aldarazten dituenean, aldiz, laboreak galdu eta gosete latzak datoz edo, gutxienez, emakume eta neskatok ur bila joateko hainbat ordutako ibilbide egin beharko dute egunero. Klima-aldaketaren aurrean, ekaitz eta uholdeekin loturiko egiazko ahuldadea ibai handien deltetan (Ganges, Mekong, Nilo eta antzekoetan) eta Hegoaldeko hiritan kontrolik gabe hazten diren kokaleku prekarioetan bizi diren landa-komunitateek erakusten dute.

Txirotutako herrialdeetan biltzen dira hondamendiak. Esate baterako, 2000 eta 2004 urteen artean, ia 262 milioi gizakik pairatu zituzten urtero-urtero hondamen klimatikoaren ondorioak eta, horietatik, %98 garatzen ari diren herrialdeetan bizi ziren. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko (ELGA) estatuetan, 1.500 biztanletik batek bat izan da hondamendi klimatikoaren baten biktima; Hegoaldeko herrialdeetan, hondamendiek eraginiko biztanleen proportzioa 19raino doa: hemeretzi herritarretik batek pairatu ditu ondorioak. Horri beste astungarri bat erantsi behar zaio: pertsonen ahulezia pobreziarekin hertsiki loturik dagoela. *Oxfam Internacional*-ek eginiko "El derecho a sobrevivir" txostenaren arabera, "... herrialde aberatsetan, hondamendu jakin batean batez beste 23 gizaki hiltzen dira; horren garatuak ez dauden herrietan, berriz, batez besteko hori 1.052 pertsona da."

Krisi klimatikoek epe luzera txiroen bizitzan izaten dute eragina. Lehorteak maizen nozitzen dituzten herrialdeetako bi diren **Etiopian eta Kenyan**, adibidez, bost urte arteko haurrek, lehortean jaiotzen badira, desnutrizioa jasateko %36 eta %50 aukera gehiago dituzte, hurrenez hurren. Etiopian horren agerpena izan zen, 2005 urtean, bi milioi haurrek gabezia hori nozitu zutela. **Nigerren**, lehortean jaiotako bi urte arteko haurrek hazkuntzan atzerapenak pairatzeko joera handiagoa dute (%72). Bestetik, Indian, uholde sasoiaren hirurogeita hamargarrenetan jaiotako emakumeek eskolara joateko zuten aukera ohikoa baino %19 urriagoa izan zela egiaztatatu da.

Lurmutur Hiriko artzapezpiku zen Desmond Tutu jaunaren hitzetan, egokipenari dagokionez, egiazko *apartheid* baterako bidean barrena goaz.

Kopenhagerako bidean

Kopenhagerako bidean prestakizunetarako hainbat bilera egin dira. Horietako bat G8 taldeak L'Aquila-n (Italia) egin zuen joan den uztailean: hura, Intermon Oxfam-eko zuzendari eta Oxfam Internationaleko ele-dun den Arianne Arpa-k lotsagarritzat jo zuen: "CO₂-ko emisioen murrizketa ezinbestekoa dugu oraintxe bertan –adierazi zuen–, ez 2050 urtean. Ezin dugu beste 30 urtez itxaron emaitza zehatzak ikusteko. Emisioen %40 urritu behar dira 2020rako. Klima-aldaketak ito-larrian utzi gaitu baina G8 taldeko herrialdeek duten gauzak begiratzeko moduak neurri larriak hartzea galarazten die."

"Goi Bilera horretako eguzki izpi bakarra –iruzkindu zuen Arpa andreak– herrialde txiroenen nekazaritza sostengatzeko eta gosearen kontrako borrokan jarduteko 20.000 milioi dolar emateko konpromisoa izan da. Nolanahi ere, lehenago ere adituak geunden kopuru

eskergadun konpromiso bat baino gehiago ere. Goseak harrapatzen dituen mila milioi gizakik ezin dute itxoin."

Kopenhagen porrot egiteak munduko biztanleriaren %40 baino gehiagori aukera gutxi-gutxiko etorkizuna ekarriko lioke; herrialdeen barneko desberdintasunak areagotuko lituzke, globalizazio-sistema inklusiboago bat garatzeko ahaleginak boikotaturik eta asko dutenen eta deus ez dutenen arteko aldea zabalduz, sakonduz. Alerta modura, honela dio Garapenerako Nazio Batuen Egitarauko (GNBE) txostenak: "Egun, behartsuak dira klima-aldaketaren zama astuna nozitzen dutenak; bihar, planetaren berotzearekin loturiko arriskuei aurre egin beharko diena, gizateria osoa [...] edozeren gaintetik, ekologia-terminoetan interdependentea den giza komunitate honen parte izateak zer esan nahi duen pentsatzeko bidea ematen digu klima aldaketak."

Arazoaren gakoak

Klima-aldaketa arriskutsua saihesteko abiagunea, bere hiru ezaugarri bereizgarriak ezagutzean datza:

1. Inertiaren eta ondorio metagarrien indar konbinatua. Igorritakoan, CO₂ eta negutegi efektuko beste gas askok atmosferan luzaro irauten dute. Ez dago atzera ekartzeko tekla sakatzerik pilaketa horiek suntsitzeko. xxii. mendearen hastapeneko urteetan biziko diren pertsonen gure emisioen ondorioak pairatu beharko dituzte, guk industri iraultzarenak nozitzen ditugun modu bertsuan.

2. Urgentzia. Hau da inertiaren korolarioetako bat. Emisioak murrizteko erabakiak adostu eta hartzeko bide horretan pasatzen den urte bakoitzean negutegi efektuko gas gehiago igorriko dira atmosferara eta bertan gehituko zaizkio hor daudenei; horrenbestez, tenperatura beroagoak eragingo dituzte etorkizunean. Arazo honen larritasuna azal dezakeen parekotasunik historian aurkitzea ez da lan erraza. Gerra Hotzean, hiri jakin batzuen kontra bidalitako misil nuklearren mordo izugarriak gizakiaren segurtasuna arrisku bizian jartzen zuen; orduan, halaz ere, arriskuari bere horretan eusteko estrategia bat "ezer ez egitea" zen. Klima-aldaketaren kasuan, aldiz, ezer ez egiteak negutegi efektuko gasen metaketa handituko dela eta gizakiaren garapenaren potentziala ezinbestez suntsitzeko bidean aurrera egitea bermatzea da.

3. Mundu mailakoa izatea. Hau da hirugarren izari garrantzitsua. Lurreko atmosferak ez du bereizten emisioen jatorria. Beraz, herrialde bakar batek, bere aldetik,

ezin du gerra hori irabazi. Batera aritzea ez da alternatiba, obligazioa baizik.

Programa hori bestelakotzeko sakoneko aldaketak egin beharko dira. Mundu osoa herrialde bakarra balitz, negutegi efektuko gasen emisioak 2050 baino lehenago emisioak erdira murriztu beharko lituzke (1990 urteko kopuruekiko) eta, gerora, xxi. mendea amaitu arte, kenketak aplikatzen segitu beharko luke. Mundua, ordea, estatu askok osatzen dute eta, balizko kasu egiantzekoetan oin harturik, gure kalkuluen arabera klima-aldaketa arriskutsuari saihets egingo bazaio, estatu industrializatuek emisio horien %80 urritu beharko lituzkete ordu-rako, hemendik 2020 urtera %30eko murrizketak eginez. Garapen bidean datozen herrialdeen emisioek 2020 urte inguruan goia joko lukete eta, 2050 urtera gabe, %20ko murrizketak aplikatu beharko lituzkete.

Kiotoko Protokoloaren ordezkio hitzarmenak bestelako norabide bat adieraz lezake baldin eta etorkizuneko emisioei muga zorrotzak ezarriko balizkio eta nazioarte mailako egintza kolektiborako markoa eratuko balu. Baliteke negoziazioak aurreratzea, kopuruei dagozkien mugak 2010 urtean finkatu eta gobernuei emisio-kopuruak xeda dakizkiekeen, karbono-aurrekontu nazionalak begira. Garapenerako Nazio Batuen Egitarauaren arabera, "Klima-aldaketa eraginkortasunez arindu dadin, oinarriak hauek dira: energi politiken erabateko aldaketetan ez ezik, kontsumitzaile eta inbertsiogileen pizgarri-egiturak aldaraziko dituzten gobernu-neurrietan oinarrituriko karbonoei dagozkion aurrekontuak finkatzea."

Erraldoi ala zoriontsu? Aurrerakuntzaren ideia aldatzea

Mehatxu horri aurre egiteak maila askotan erronkak sortaraziko ditu eta areago, agian garrantzizkoena, aurrerakuntzaz dugun pertzepzioa auzitan jarraraziko digu. Aberastasun ekonomikoen sorkuntza eta gizakia- ren aurrerapena sinonimoak ez direla: horra hor klimak utziriko agerpen edo adibiderik garbiena. Indarrean di- tugun energi politika horiekin hazten ari den joritasun ekonomikoaren eskutik etorriko zaizkigu, gaurko giza- kiaren garapenaren eta biharko belaunaldien ongiza- tearen aurkako mehatxu larriagoak. Karbono-dioxidoko emisio handiak eragiten dituen garapen ekonomikoa,

berriz, arazo sakonago baten sintoma da. Klima-aldake- tak irakasten dituen gauza guztien artetik, onartzeko zailenetako bat hau da: garatutako estatuetan neurritz kanpoko hazkuntza eta, ondorioz, kontsumoa sustatzen dituen ekonomi ereduak ez da iraunkorra, ekologiaren ikuspegitik. Aurrerakuntza eta garapenaren sinonimo- tzat hazkuntzari eustea, beraz, gizateria osoarentzako etorkizun jasangarria mantentzearekin ezin uztar daite- ke. Bide horretatik, batzuk erraldoi bihurtu arte haziko gara. Gure etxea, Lurra, hautsi arte. Gizakia- ren neurria galdu arte.

Herrialdeen erantzukizunak...

Hortik agertzen dira, hain zuzen, bidezko akordioetara iristeko erresistentzia latzenak. Kopenhagen (eta berta- ra doan bidean, hala nola Bartzelonan, azaroaren 2tik 6ra arte, klimaren mundu mailako goi bilera hasi baino hila- bete lehenago, negoziazioen bukaerak adosteko xedez, egingo den alde aurretiko bileran) tradizioz garapenean denbora luzea emaniko herrialdeek sekulako eragozpenak ezarriko dituzte. Erantzukizunak partekatze eta bete- beharrekoak onartzeko garaian, funtsezko erreferentzia historikoki gauzaturiko emisioak dira: alderdi hori hein batez bakarrik “Berlingo agintaldi” izenekoan eta Kiotoko Protokoloan aintzat hartua izan zen, emisioak mugatzeko betebeharrak garatutako estatuei bakarrik xedatu baitzi- tzaizkien. Kiotoz gozotiko zeinahi akordioak emisio histo- rikoak aintzat jo beharko ditu. Aitzakia, ordea, industria eta enpleguak atzerriko herrialdeetara joateari saihestu egitea da, horietako batzuek (Txinak, adibidez) lehen etapa hone- tan emisioak murrizteko inolako obligaziorik ez dutelako. Karbonoaren *dumping* moduko bat praktikan ezarri.

Txina, India, Brasil eta goraka doazen gainerako eko- nomia horietan erregai fosilen errekontza mugatzea den bidegabekeria kexu dira, horrek estatu horietako garapena galarazten dielako eta, gainera, tradizioz in- dustrializaturiko herrialdeei, planetaren egungo egoera larri honen sortzaile eta iraunarazle badira ere, ez zaie horrelako eragozpenik ipini. Arrazoi ezagun batez in- dartzten da argudio hori: Txinak, adibidez, azken ha- markada honetan ikatza erretzetiko emisioak bikoiztu eta gehiago egin badu ere, bertako *per capita* emisioak Estatu Batuetakoez edo Europar Batasunekoez dezente azpitik daude. Emisio globalei muga zorrotza ezartzeko premiak behartzen die estatu industrializatuak —hauek dutelako egungo egoera tamalgarriaren erantzukizuna ez ezik, beharrezkoak diren inbertsioak egiteko gaita- suna eta baliabideak ere— teknika eta finantza alorretan

garapenean doazen herrialdeak lagun ditzaten, hauek, beren garapena eta pobrezia- ren kontrako borroka gel- diarazi gabe, beren emisioen hazkuntza mantsoarazi eta etorkizunean murriztu ditzaten.

Garapenerako Nazio Batuen Egitarauak salatu duen modura, “gosea eta miseria gorria bereizgarri nagusi dituen bizitza hobetzeko asmoz, egunez egun lanean diharduten pertsonen lehentasun osoa izan beharko lukete giza elkartasun gaietan. Horiek, zalantza izpirik gabe, nazioarte mailako goi bileretan elkartzen diren eta garapenari helburu handinahiak ezartzen dizkieten (nahi, gerora, helburu horiek suntsitzen diren, klima-aldaketa alorrean behar adinako egintzarik ez gauzatzearren) lider politikoek baino zerbaite gehiago merezi dute.”

Klima-aldaketarako egokipenaren finantzaketaz ere beste horrenbeste esan daiteke. “Munduko behartsuek eta etorkizuneko belaunaldiek —dio GNBEK berak— ezin dituzte onetsi klima-aldaketaz nazioarte mailako nego- ziazioek bereizgarri dituzten saihezkako erantzun eta hitz goxoak. Eta, era berean, estatu garatutako liderrek klima-aldaketaren mehatxuek diotenaren eta, errealita- tean, beren energi politiketan praktikan jartzen dutena- ren, hau da, promesen eta egintzen, esanen eta izanen arteko alde larria ezin dezakete onartu.”

Herrialde aberatsen konpromisoa, gaurdaino, hama- zortzi mila milioi dolar baizik ez da, hots, herrialde ho- riexek beren banka sektoreetara bideratu dituzten bilioien parte ñimiño bat baizik ez. Horrela ere, agindutako ha- mazortzi mila milioi horietatik mila milioi baino gutxiago atera dituzte patrikatik. “Era higuigarrian —salatu zuen “*Bizirauteko eskubideak*”—, estatu garatuek errazkiago negoziatu ahal izateko, abantaila gisa, egokipenerako fi- nantzaketa baliatzen ari dira; 2009 urtean egiazko aurre- rapenik gauzatu ezean, gabezia horren egiazko kostua ez da milioi dolarretan neurtuko, giza bizitzetan baizik.”

... eta pertsonen ardurak

Klima-aldaketaren aurkako borroka gizateriaren aldeko borrokaren parte bat da. Bataila hori irabazi ahal izateko aldaketa eskergak egin behar dira hainbat alorretan: kontsumoan, energia ekoizti eta prezioa xedatzean, nazioarteko elkarlanean. Eta, ororen gainetik, ekologiaren elkarreagina, munduko behartsuentzako justizia soziala eta giza eskubideak ikusteko dugun moduan.

Ingurugiro alorreko beste zenbait arazotan bezalaxe (CFC gasak, amiantoa, transgenikoak, etc.) boterearen ohiko erreakzioa hau da: lehendabizi, arazoa ukatzea; ondoren, barregarri utzi edo minimizatzea; beharrezko neurriak atzen-atzenean baizik ez dira hartuko arazoa, denen begi bistakoa eta larri bilakatu, egindako kaltea latza izan, eta presioa erresistentzia guztiak baino handiagoa denean. Neurriak "hartu beharreko premia" horren adiera, hain zuzen, ezinbestekoak baizik ez hartzea izan ohi da, gure bizitzan deus ere alda ez dadin. Horregatik du sekulako garrantzia herri ekimenak.

Gauzak aldatzea eskura dugu, inolako tragediarik gorpuztu gabe –tragedia egiazkoa, guk ezer ez egitetik ondorioztatuko den horixe!–. Elektrizitatea sortzetik datozen emisioak murriztea aski erraza da (ikatzek funtzionatzen duten zentral termikoen ordez, gas naturalez diharduten ziklo konbinatukoak martxan jarriz, bigarren motako hauek, ekoizten duten kilowatt bakoitzeko emi-

sioen herena baizik ez dutelako emititzen edo, areago, inolako emisiorik eragiten ez duten parke eolikoak instalatuz). Bidezko konponbide bakarra eskakizuna apaltzea, jarduerak nahasirik biltzen dituen hiri dentsoa sustatzea eta garraio bideak aldatzea: garraio publikoa, trena edo tranbia, automobil edo hegazkinaren partez.

Airezko garraioak mundu zabalean karbono-dioxidoaren emisioen %2 baizik ez du eragiten, baina emisio horiek 1975etik 2003 urtera %205 hazi dira eta gorako joera hori areagotu egingo da datozen garaiotan, kostu apaleko bidaiak antolatzen dituzten konpainien tarifak merkatzearen erruz. Tarifa horiek, izan ere, ez dute adierazten beren karbono-dioxidoen, nitrogeno-oxidoen emisioen eta uheren ingurugiro-kostua, ezta egiten duten hots izugarriarena, ezta inguruetakoko herrietan aireportuek duten inpaktu latzarena ere. Nazioarteko hegaldietako kerosenoari, izan ere, ez zaio zergarik ezartzen. Emisio horiek konpentsatzeko jomugaz, arbolatxo batzuk landatzeko diru-kopuru txiki-txikiak borondatez emateak batzuen gaiztakeriazko kontzientzia lasaitzeko bai, baina hortik aurrera ezer gutxirako balio du; bidezkoa den bakarra: hegazkinen bidaiari zerga fiskal handiak jartzea eta, internet eta bideokonferentzien garai hauetan, beharrezkoak ez diren bidaiak egiteari uko egitea baino ez.

Gobernu espainiarrarentzako proposamenak

Izaera askotako erakunde eta kolektibo sozial ugari ari dira aspaldi honetan proposamenak planteatzen; hauek arrakastatsuak izatea, hein handi batez, herritarren konpromisoak eta kontzientzia hartzeak ahalbideratuko dute. Plataforma horietako bat *Coalición Clima* izenekoa da: bertan ekologismo, sindikalismo, garapenerako elkarlan, zientzia, ikerkuntza eta kontsumitzaileen antolakuntza alorretako 29 erakunde bildu dira, klima-aldaketa geldiarazi eta horren efektuak arintzeko xedez.

Koalizio zabala, izaera anitzekoa eta gizarte zibilarren ordezkarri den aldetik, estatu bezala hartuko den konpromisoaren euskarria eraginkortasun, zuzentasun, iraunkortasun, austeritate eta arrazionaltasunean oinarritzea eskatzen dio Espainiari.

Eraginkortasuna: prozesua gelditu eta atzera martxan abiatzea

Coalición Clima-k Gobernu espainiarrari eskatu dio, alde anitzeko negoziazio prozesuetan, negutegi efektuko gasen emisioen mugapena xeda dezan, horri esker,

temperaturaren areagotzea "segurtasun mugaz" (2°C) azpitik mantentzea bermatzeko. Horrek, zehazkiago, esan nahi du herrialde industrializatuak derrigorrezko mugak finkatu behar zaizkiela: horrela, estatu horiek barne-mailako neurriak hartuz, 1990 urteko emisio-bolumenaren aldean, 2020 urterako gutxienez %30eko murrizketa lortu beharko litzateke eta 2050 urterako, berriz, %80eko murrizketa.

Beste aldetik, Espainiak bere buruari negutegi efektuko gasen emisioen mugapena xeda diezaion eskatu du baina, inondik inora, Kiotoko Protokoloan ezarritako mugak baino apalagorik onartzeke.

Adierazitako emisioak arintzeko konpromisoekin koherentziaz, estatu, erkidego eta tokiko mailako neurriak har daitezkeen exijitu du.

Eta espainiar enpresen gainean herritarren kontrola eragitea sustatu eta jarduteko irizpideak ematen ditu, emisioak murrizteko helburuak erdieste lanetan, sektore pribatuak ere lagundu ahal izan dezan, neurri horiek martxan jartzea eragozten duena salatua izan dadin proposatuz.

Zuzentasuna: klima-aldaketa eta txirotasuna

Coalición Clima-k Gobernu espainiarrari eskatu dio, alde anitzeko negoziazio prozesuetan, egokitze-politikak aintzat har daitezen exiji dezan, klima-aldaketaren aurkako eginbidea funtsezko euskarri gisa hartuz, Garpenerako Laguntza Ofizialetik at ere, nahikoak izango diren finantzatzeko konpromisoak bereganatuz. Zehazkiago, garapenean doazen herrialdeetan beharrezkoak diren egokipen-neurriak Espainiak areago ditzan eskatzen du eta, era berean, 2012 urterako, helmuga horretarako Barne Produktu Gordinaren %0,2 bideratzera hel dadin.

Teknologien transferentzia egokia egitea erraz dadin eskatzen du: horretarako behar adina finantzatzeko konpromisoak hartu behar dira, herrialde txirotuek garapen humano iraunkorrera hel daitezen, erregai fosilen kontsumo masibora edo energia nuklearrera jo beharrik izan gabe, energia berriztagarrien eta energi eraginkortasunaren garapen bidean aurrera eginez.

Estatuan bertan eta nazioarte mailan, estatu-politika guztiek koherentziaz xeda eta aplika daitezen exijitzen du, hainbat kontutan –garapen garbiko mekanismoen erabileran, nekazal erregaien sustapenean, deforestazio saihestuaren finantzazioan, teknologien edota ekoizpen jardueren esportazioan, etab.– gizartearen bizimoduaren eta ingurugiroaren kalitatea bermatuko duten irizpide zorrotzak ezar daitezen.

Iraunkortasuna: garapen eredu energi oinarrietatik hasita eraldatzea

Coalición Clima elkartearen iritziz, klima-aldaketaren zergati behinena erregai fosilak izanik, energia nuklearrarekin batera, horiek dira energi eredu iraunkorra garatzearen eragozpen larriena.

Gobernu espainiarrari, energi aurrezki eta eraginkortasunari buruzko legea xeda dezan eskatzen dio; testu horren bidez, energia primarioaren erabilera gutxienez %20a murrizteko konpromisoa hartu beharko litzateke 2020rako, 2005 urtearen aldean, termino absolutuetan.

Energia berriztagarrien %30eko erabileraz lagundu

egin liteke energia primarioaren ekoizpena 2020 urterako eta %80koaz, 2050erako. Era berean, Gobernu espainiarrak lege-sostenguko markoa, ordainbidezkoa eta l+G+b balioduna ezartzea helburutzat jarri behar dio bere buruari; horri esker, hornikuntza bermaturik, energia berriztagarriek 2020an elektrizitatearen ekoizpenaren erdia estaliko lukete eta ekoizpen osoa 2050 urtean. Helmuga horretara bidean aurrerapausoak egiteko lanabes gisa, energia berriztagarrien legea garatzea proposatzen du *Coalición Clima* elkarteak.

Kontsumitzen den energiaren jatorria aske aukeratzeko eskubidea egikaritzea ahalbideratuko duten lege eta teknika alorretako aldaketak egitea exijitzen du.

Lurraldearen okupazioan eta energiaren erabileran aldaketak egitea proposatzen du, garraio motorizatua murriztu eta urbanismo sakabanatua mugatzeko.

Energia berriztagarrietan, energi eraginkortasunean eta antzeko sektoreetan kalitateko enpleguak sortzea sustatuko duten herri-politikak eta hitzarmen sozialak eskatzen ditu. Era berean, klima-aldaketaren aurkako neurriek eraginiko sektore eta eskualdeetako langileei eraginiko kalteak hein batean bederen arintzeko “bidezkoatasunezko trantsizioa” egiteko neurriak susta daitezen eskatzen du.

Austeritatea eta arrazionaltasuna: kontsumo arduratsua egin dezagun

Coalición Clima elkarteak klima-aldaketaren zergatien, horren oraingo eta geroagoko ondorioen eta horrek behartsuenentzat den bidegabekeriaren gaineko jarrera eta jokaerak aldatzea sustatzen du, arintze eta egokipenerako proposamenak sostengatuz.

Espainiako herritarren, enpresen eta herri administrazioen aztarna ekologikoa arintzea ahalbideratuko duten ekimen jakinak sustatzen ditu.

Modu berean, dokumentu honetan jasoriko iritziekin bat, herritarrek politika publikoetan eta enpresa pribatuen jokabidean aldaketak eragitea exiji dezaten mobilizazio-ekimen jakinak gauzatzea proposatzen du.

Bestarik jakin nahi izanez gero...

Liburu eta txostenak

- ▶▶ **La situación del mundo, 2009. El mundo ante el calentamiento global**
The Worldwatch Institute. Icaria. Bartzelona, 2009.
- ▶▶ **Protozoos insumisos**
Araceli Caballero. Intermón Oxfam. Bartzelona, 2009.
- ▶▶ **Evidencia que duele. El cambio climático, la gente y la pobreza**
Oxfam International. 2009ko uztaila
www.intermonoxfam.org/UnidadesInformacion/anexos/11050/090706_Evidencia_que_duele.pdf
- ▶▶ **La crisis del clima. Evidencias del cambio climático en España**
www.greenpeace.org/raw/content/espana/reports/090503.pdf

Web orriak

- ▶▶ **Intermón Oxfam**
www.intermonoxfam.org/cortoycambio
<http://dalelavueltaalmundo.intermonoxfam.org/>
- ▶▶ **Oxfam International**
www.oxfam.org/es/policy/evidencia-que-duele
- ▶▶ **Worldwatch**
www.nodo50.org/worldwatch/
- ▶▶ **Coalición Clima** elkartea
www.coalicionclima.org/

Bideoak

- ▶▶ **Eco-consumismo**
www.youtube.com/watch?v=MCvylJRj-cw&feature=player_embedded

Sar zaitez gure web gunean eta jaitz ezazu Global express aldizkaria!

www.IntermonOxfam.org/educar/global



- | | |
|----------------------------------|-----------------------------------|
| 16 zk. Kopenhage: azken deialdia | 10 zk. Klima aldaketa |
| 15 zk. Nekazal erregaiak | 9 zk. Emergentsia eta elkartasuna |
| 14 zk. Kontsumoa | 8 zk. Joko Olinpikoak |
| 13 zk. Turismoa | 7 zk. Demokrazia |
| 12 zk. Petrolioa | 6 zk. Armamentismoa |
| 11 zk. Pobrezia | 5 zk. Afrika eta lehorte |
| | 4 zk. Irak |
| | 3 zk. Lurraren gailurra |
| | 2 zk. Argentina kinka larrian |
| | 1 zk. Afganistan |



Global express-en helburua, hedabideek adierazten dutenaz ikasleen artean galderak sorraraztea da. Kontua da errealitateaz ikuspegi kritikoa sustatzea, munduaren eta, bereziki, garapenean doan munduaren egoera uler dezaten.

Koordinazioa: Anna Duch eta Araceli Caballero.
Edizioa: Josep Marcé.
Diseinu eta ilustrazioa: Xavier Alamy eta Rosa.
Informazio dossiera: Araceli Caballero.
Hezkuntza proposamena: Israel García, M. Àngels Alié, Marga Florensa, Raquel León eta Lucas Pérez.
Euskaratzea: Edorta Agirre.

Finantzaketa:

